



2019

PIRINIOETAKO
ESKOLARTEKO
I. MIKROIPUIN
LEHIAKETA

ANTOLATZAILEAK

PIRINIOETAKO EUSKARA ZERBITZUAK ETA ESKOLAK



Aurkibidea

LHko 3. eta 4. maila

- | | | |
|-----------------|---|---|
| 1. saria | <i>Jirafa baxua</i> , Izadi Velasco Sanchez | 3 |
| 2. saria | <i>Tegreb</i> , Kartu Zalba Pérez | 4 |
| | <i>Laku sorgindua</i> , Irati Zabaltza Ubau | 5 |

LHko 5. eta 6. maila


- | | | |
|-----------------|--|----|
| 1. saria | <i>Zergatik ez?</i> , Garbiñe Etxeberria Redín | 7 |
| 2. saria | <i>Enararengatik euskaldun</i> , Amane Sanzet Aranburu | 8 |
| | <i>Guztiak berdinak gara</i> , Manex Mendikoa Etxeberria | 9 |
| | <i>Gauza txarrak onak izan daitezke</i> , June Zalba Pérez | 10 |

DBHko 1. eta 2. maila

- | | | |
|-----------------|---|----|
| 1. saria | <i>Amesgaiztoa</i> , Amets Zabaltza Ubau | 12 |
| 2. saria | <i>Kristalezko ilargia</i> , Nahia Artutx Mozo | 13 |
| | <i>Denak gara berdinak</i> , Miren Recalde Villar | 14 |
| | <i>Non dago elurra?</i> , Mikel Portillo Samper | 15 |
| | <i>Ezkutaketan jolasten</i> , Amaia Hualde Calvo | 16 |

DBHko 3. eta 4. maila

- | | | |
|-----------------|---|----|
| 1. saria | <i>Ezinezko amodioa?</i> , Kira Canales Aguerre | 18 |
| 2. saria | <i>Berandu baino lehen</i> , Markel de Miguel Goienetxe | 19 |
| | <i>Ni buruz behera, zu buruz gora</i> , Ada Montoya Mendibe | 20 |

The background features a series of horizontal, wavy bands in various shades of blue and purple, creating a layered, watercolor-like effect. The colors transition from a deep purple at the top to a lighter blue at the bottom, with some darker blue accents. The overall texture is soft and fluid.

LH3-4

Jirafa baxua

Bazen behin belardi handi batean bizi zen jirafa altu bat. Zuhaitzak bezain altua zen, lepoa luze-luzea zeukan, azala orbanez beteta, belarriak oso txikiak eta tripa, tripa oso potoloa zeukan.

Egun batean haur bat izan zuen, zoritxarrez oso txikia jaio zen, txikiegi. Amak basoko mila ospitalera eraman zuen baina ez zuen ezertarako balio, txikia eta baxua izaten jarraitu zuen.

Urte batzuk pasa ondoren jirafa baxuena bihurtu zen. Hori ez zen ez da ona ez da txarra ere, baxua zen eta kitto.

Baina problema hasi zen egun batean animali batek beraz barra egin zuenean. Eta hortik aurrera animali guztiek beraz barra eta barra egiten zuten.

Hasieran ez zitzaion gustatzen eta mina egiten zioten, baina gero, hain ohituta zegoen kasu egiteari utzi ziola eta ikasi zuen ez duela inporta besteek zer pentsatzen duten zutaz, baizik eta zer pentsatzen duzun zuk.

Tegreb

Wild west istorio bat.

Bazen behin bakero lapur sutsu bat Ameriketako Estatu Batu guztien bilatua zena. Roy Mike izenaz ezaguna zen. Roy oso aberatsa zen, 7 urte zituenetik lapurtu zuelako.

Egun batean Roy hotelean zegoela pasabide bat aurkitu zuen.

Barrura sartu eta handik gutxira kobazulo bat aurkitu zuen.

Kobazulo hura pobrez beteta zegoen.

Haiek Roy ikusi bezain laster bera su ondora gonbidatu zuten. Roy ordura arte ez zekien inork maitasuna emango zionik, eta handik aurrera lapurtu zuen dirua haiei eman zien, nahiz eta euro bat bazen ere. Oso lapur jatorra izan zen.

Agur bakero bat.

Laku sorgindua

Egun batean, nire laguna Arpearekin nengoela, bidai bat egitea pentsatu nuen laku batera. Arpea eta biok lakuaren erdian geunden, bi metroko txalupa batean, biak bata besteari begira geunden beldurtuta eta bat-batean ekaitza hasi zen. Biak uretara bota ginen.

Halako batean laino sendo batek Arpea inguratu zuen eta ni itotzen hasi zen, ni uretatik ezin nintzen atera eta ia ia hil egin nintzen.

Zortez nire aita agertu zen eta Arpeak hartutako sorginkeria desagertu zen, eta aitak salbatu gintuen.



LH 5-6

Zergatik ez?

Imajinatu zelai batean zaudela eta belarra metro bat neurtzen duela, zer egingo zenuke? Zergatik ez korrika egin zelaian barna esaten “iuuuuuuu”. Edo zergatik ez hondartzan zaudela surf egiten saiatu? Edo zergatik ez mendiko aldapatik jaistea kroketa egiten? Zergatik ez erreka-ondoan liburu bat irakurtzea? Zergatik ez koadro bat janariarekin margotzea?

Beti zerbait egin nahi duzunean galdetu zure buruari “zergatik ez” oso ongi pasatuko duzula. Saiatzen ez bazara berriz abentura bat galduko duzu. Horregatik beti galdetu “Zergatik ez”.

Enararengatik euskaldun

Munduko beste hizkuntza asko bezala, bazegoen euskara; munduan dagoen hizkuntza zoragarri bat. Oso jende gutxik zekien baina oso berezia zen.

Lestala izeneko herri txiki batean, Enara izeneko neska bat bizi zen. Berak euskara maite zuen baina bere gurasoek ez zekitenez, etxean gazteleraz hitz egiten zuten.

Egun batean, bere logelan sartu eta bere jostailuekin euskaraz hitz egiten hasi zen, gero gurasoei erakutsi eta bukatzeko herriko jendeari erakutsi zien.

Urteak pasa ahala, Lestala herri erdalduna, euskalduna bihurtu zen.

Enarak zabaldu zituen bere hegoak.

Guztiak berdinak gara

Atzo, HAKo klasean berriro hitz hori entzun nuen. Nik ez dakit zer esan nahi duen, baina terapan asko errepikatzen da. Begiratzen naute eta ume desberdinak garela esaten dute, atentzio desberdina behar dudala. Nik hitz egin, farra egin eta jolastu nire lagunek bezala egin nahi dudala esaten diet.

Ni beraiek bezalako ume bat naiz, ni ez naiz AUTISTA.

Gauza txarrak onak izan daitezke

Bazen behin Ekia izeneko Kaskagorri ausart eta abenturazale neskatoa. Oso alai eta pozik bizi zen bere herri maitean, Txirripatxin. Bertan denak ziren ongi etorriak eta maitatuak. Egun eguzkitsu batean, beste edozein egun bezala, Ekia ohetik altxatu eta, ez bazekien ere, sorpresa ez on ez txar bat espero zuen. Gosaltzera jaitsitakoan ama eta aita urduri ziruditen. Orduan Ekia jakin izan zuen beste herri batera zihoazela. Bera, pena handiz baina baikor, maleta egin eta etxe berrira abiatu zen.

Herri berrira iritsitakoan hasieran urduri eta bakarrik sentitzen zen. Ez zien inork hitz egiten. Hilabete gogorak izan arren, ez zuen itxaropenik galdu. Gogoan zeuzkan lagunak, etxea eta herria. Hilabeteak pasata, poliki-poliki, aurrekoa ahaztu gabe, leku guztietan pertsona sinpatikoak, adoretzuak eta lagun onak daudela konturatzen zen.

Beraz, lekuz aldatzeari beldurrik ez izan.



DBH1-2

Amesgaiztoa

● Sekulako lurrikara hasi da, lurra erditik zatitzen hasi da eta nire familia beste aldean dago. Salto egin nahi dut baina ez naiz ailegatzen. Ez dakit zer egin, eta ez dut bakarrik egon nahi. Gero eta urduriago nago eta bat-batean lurrera erori naiz; dena beltz dago.

● Esnatu egin naiz, izerditan nago baina ohean. Dena amesgaizto bat izan da. Ongi nago eta berriro lokartu naiz.

Kristalezko ilargia

Haizea gurasoekin haserre dago notak igo behar dituela esan diotelako. Bere logelara joan da, mineral bat hartu du eta leihotik bota du. Kristal hautsi baten soinua entzun du eta leihotik begiratu du. Ilargia hautsi duela konturatu da, ez daki zer egin.

Haizeak gauero botatzen du kristal zati bat leihotik ilargia berriro sortu dadin.

Denak gara berdinak

Beñat naiz eta 20 urte ditut. Duela hiru hilabete nire bizitzako esperientziarik onena bizi nuen.

Kurtsoa hasi berria, nire klaseko mutil bat ezagutu nuen, Peru.

Berehala lagunak egin ginen eta kuadrilla berekoak egin ginen.

Berarekin nengoenean oso gustura egoten nintzen eta berataz

zerbait sentitzen hasi nintzen. Bat-batean konturatu nintzen Peru

gustuko nuela eta beldurtu egin nintzen. Zer esango zuten lagunek?

Zer pentsatuko zuen Peruk?...

Egun batean ausartu nintzen Peruri sentitzen nuena esatera eta

berak berdina sentitzen zuela esan zidan, baina, lagunek gutaz

barre egiten hasi ziren. Niri ez zitzaidan batera gustatu baina

Peruk aurre egin zien denak berdinak garela esanez.

Non dago elurra?

Udazken oro gogoekin espero dut elurra iristea eta mendiak zuriz estaltzea. Amets egiten dut pistak abiadura askorekin jaistea eta hotza nire aurpegian sentitzea.

Denbora oso azkar doa, gustatzen zaizun zerbait egiten duzunean eta zure lagunekin konpartitzen duzunean.

Baina ez, dena ametsa izan da. Edo errealitatea?

Ez du elurrik egiten, edo ez du nahi edo ez diogu uzten. Azkenean elurra amets bat izatea lortu dugu, izan dugun zerbait baina izateko kostatzen zaiguna, disfrutatzen eta faltan botatzen dugun zerbait, gure erruarengatik ez duguna, natura ez zaintzeagatik, berak zigortzen gaitu.

Ezkutaketan jolasten

Zuhaitzaren atzean, ohearen azpian...

Oso erraz ezkututzen gara besteengandik.

Norbait ikusten dugunean maindirearen azpian sartzen gara.

Beldurrez itxaroten dugu norbaitek harrapatu behar gaituenean.

Baina noizbehinka ezkutalekutik atera eta estalkirik gabe hitz egiten dugu.



DBH3-4

Ezinezko amodioa?

● Itsasoak olatuak altxatzen ditu; zerura ailegatu nahian, hura laztandu eta ukitu nahian, baina ezinezkoa da... Zeruak lainoa sortarazten du; itsasora ailegatu nahian, hau laztandu eta sentitu nahian, baina ezinezkoa da...

● Ezinezko amodioa al da? Betikotasun guztian bananduta egotera kondenatuak al daude? Biek ezetz dakite. Zeruertzean elkartuko dira.

Berandu baino lehen

Gizona aulkian eseri zen eta medikuari galdetu zion:

- Zenbat geratzen zait bizitzeko?

Eta bakarrik erlojuaren soinua entzun zen, tik-tak, tik-tak...

Gizona urduri zegoen, denbora normalean baino azkarrago igarotzen zen. Zenbat gauza egiteko denbora laburrean. Denbora emango ote zion?

Eta bere buruari esan zion:

- Nola ez nuen egin denbora nuenean?


Aulkitik salto egin eta inoiz hitz egitera ausartu ez zen neskarengana abiatu zen.

Ni buruz behera, zu buruz gora

Amalurren Euskal Herria dago, Euskal herrian mendi tontor bat dago eta mendi tontor horretan, zuhaitz baten adarrean, txoritxo txiki bat dabil txio-txioka.

Barkatu okertu egin naiz.

Txoritxoa adarrean, mendi tontorrean, Euskal Herrian eta Amalurren dabil txio-txioka.



Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra